

Liderra da tokiko elikagaiak merkaturatzen

EROSKI-K ETA NAFARROAKO 80 EKOIZLEK KANPAINA BAT HASI DUTE TOKIKO JANARIAREN ALDE

- **Nekazaritzako elikagaien aldeko kanpaina da, sektorearen aniztasuna indartzeko balio duena, eta gaur abiatuko du EROSKI-k bertako 200 produktu balioan jarrita Iruñeko hipermerkatuan**
- **2016an, nabarmentzekoak izan dira EROSKIko esnekien eta haragiaren erosketak Nafarroan, %25 eta %8 handitu baitira hurrenez hurren**
- **Iaz, tokiko produktuen salmenta %10 handitu zen Nafarroan**

Iruñea, 2017ko ekainaren 16a.- [EROSKI](#)k 80 hornitzailearen laguntzarekin, produktu freskoen 38 ekoizlerekin eta elikagai ontziratuak 49rekin abiatu du Nafarroan ekoizten den janariaren aldeko kanpaina, bertako 200 produktu ezagutarazita eta balioan jarrita. Denera, 400 hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da EROSKI Nafarroan, eta, joan deneko bost urtean, nekazaritzako elikagaien sektoreari 1.000 milioi euroren erosketak egin dizkio.

Hondarreko urtean, handitu egin da EROSKI-k Nafarroako ekoizleei erosten dien produktu kopurua. Nabarmentzekoa da iaz Nafarroako ekoizleei erositako esneki kopurua, lehengo urtean %25 baino gehiago handitu baitzen, zergatik eta, neurri handi batean, %100 Nafarroakoa den esne marka berri bat ekoizten hasi zelako PLS zigiluarekin; hau da, esnekia iraunkorra dela bermatzen duen zigilua.

Bestalde, ikustekoa da aurreko urtean nola handitu diren %8 baino gehiago Nafarroako haragiaren erosketak. Sare komertziala birmoldatzearen poderioz, EROSKI-k harategiko mahaia jarri du belaunaldi berriko bere denda sarean, bezeroari arreta pertsonalagoa emateko. Igoera hori zer dela medio gertatu den aztertuta, batez ere aipatu behar da Nafarroako Aratxea —AGBarekin ziurtatuta dagoen abelgorri haragia— EROSKI Natur marka propioarekin saldu izana.

EROSKI-k Nafarroako Hipermerkatuetan duen eskualde zuzendariak gogorarazi duenez, *“EROSKI-k konpromisoa hartua du Nafarroako produktuen alde egiteko eta horiek indartzeko. Dagoeneko, EROSKIren belaunaldi berriko denden*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

ezaugarrietako bat da tokian tokiko janari freskoen espezializazioa". Eta hauxe gaineratu du: "Nafarroan konpromiso sendoa dugu nekazaritzako elikagaien sektorearekin. Nabarmendu beharrekoa dugu, era berean, INTIA-Reyno Gourmetekin dugun lankidetzaren estua, horren bitartez bultzatzen baitugu hemengo nekazaritzako elikagaien sektorea eta ekoizpen ehunaren aniztasuna".

Kontuak horrela, ekimen kopuru zabal bat ari da gauzatzen EROSKI Nafarroako produktu lokalak garatzeko. Hala nola produktu horiek bere markara ekartzea; hor dira, besteak beste, arrautzak, barazki kontserbak, esnea, Idiazabal Artzai-Gazta eta Erronkari jatorri izenetako ardi gazta, "Nafarroako Zainzuria" AGBa daraman zainzuria, "Tuterako Orburua" AGBa daraman orburua eta Eroski NATUR Reyno Gourmet oilasko marka atera berria.

2016an %10 igo da tokiko produktuen salmenta

Kooperatibak, elikadura osasungarriago baten oinarri gisa janari freskoa indartzearen alde diharduen honetan, arrakasta izan du Nafarroan Zurekin eredu komertzialarekin, %10etik gora igo baitira iaz Foru Komunitateko [EROSKI](#) dendetan saltzen diren Nafarroako produktuak. Joan den urteko eboluzio baikor horrek berretsi baino ez du egiten Nafarroako produktuen salmentak igotzen doazela, hiru urte honetan denera %30 igo baita.

Tokio janariaren aldeko jaialdia Iruñeko hipermerkatuan

Eskualdeko kanpaina abiatzeko, EROSKIk ekitaldi bat antolatu du gaur arratsaldean Iruñeko hipermerkatuan. Bertan izanen da Reyno Gourmeten Sustapenerako zuzendaria, Cristina Lecumberri.

Bertaraten direnek, Nafarroako produktuen erakusketa ez ezik, Javier Mugica sukaldari nafarraren pintxo tailerra izanen dute, hori guztia Sueños Rotos izeneko gazteen musika taldeak giroturik.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)